

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

#### **“Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Saratxo-Mesones tarte - Amurrio) gauzatzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrendaren jendaurreko informazioa**

Foru Gobernu Kontseiluaren 2024ko urriaren 15eko 590/2024 erabakiaren bidez, “Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Saratxo-Mesones tarte-Amurrio) gauzatzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Alegazioak xedatutako epearen barruan aurkeztu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza, 4 – 6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz).

Interesa duten erakunde, entitate, korporazio eta partikularrek eskuragarri dituzte lurzatiaren planoak eta eraginpekoen zerrenda, Amurrioko Udaletxeko ediktu taulan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan, eta, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, esteka honetan: <https://irekia.araba.eus/eu/expropiaciones>.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 28a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila  
 Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

Arabako Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Álava

PROIEKTUA / PROYECTO  
**Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Saratxo-Mesones tartea - Amurrio) gauzatzeko proiektua**  
**Proyecto de ejecución de la Vía Verde del Parque Lineal del Nervión: tramo Saratxo-Mesones (Amurrio)**

ERANSKINA / ANEXO  
 Udal Mugartea / Término Municipal: Amurrio

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		ERAGINDAKO ONDASUNA	Esp./Expte. 2024/5	
		POLIGONOA	LURSAILA		ERAGINDAKO AZALERA m²	BEHIN-BETIKOA
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES	PROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m²	
		POLIGONO	PARCELA		DEFINITIVA	
1/000	Tubacex S.A.	7	595	Larrea / Pastizal	Zuhaizti / Arbolado	1014
2/000	Funeraria Larraz S.L.	7	605	Lurzorua urbanizatu industrialia / Urbanizado Industrial	Hesia / Vallado	948
3/000	Joseba Ibarrola Leibar	7	594	Zelaia/ Pradera	Horma / Muro Itxitura / Cierre	189